




Aireportuen jarduerak gora egiten jarraitzen du

Aireportuetako igaro diren bidaiariak
Urte bakoitzeko apirila. Milakoak




Iturria: AENA.

EAEko aireportuetako pertsonen trafikoak gora egiten jarraitu zuen eta apirilean %23,1 gehitu zen, aurreko urteko hil berarekin alderatuta. Zehazkiago adierazita, guztira 600.000 pertsonak baino gehiago erabili zituzten aireportuak eta serie historiko osoan apiril batean jaso den kopururik handiena da.

EAEko esportazioak %26,5 hazi ziren martxoan

Ondasunen esportazioak atzerrira
Urte bakoitzeko martxoa. Milioi euro




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako azken datuen arabera, **2023ko martxoan EAEk atzerrira esportatutakoaren balioa %26,5 gehitu zen aurreko urteko hil berarekin alderatuta.** Zifra absolutuetan, guztizko balioa 3.312 milioi eurokoa izan zen, serie historiko osoko erregistrorik handiena delarik.



EAEko merkataritzak %0,3 handitu zuen salmenta

Merkataritzako indizea
Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoa




Iturria: Eustat.

2023ko lehen hiruhilekoan, merkataritzako salmentak %0,3 gehitu ziren aurreko urteko aldi berearen aldean. Igoera txikia bada ere, 2010etik lortutako mailarik altuena da. Era berean, beste datu positibo bat sektoreko enpleguaren bilakaera izan zen, %1,0ko hazkundera lortu zuelako.

Turismoen matrikulazioak gora egin du Euskadin

Turismoen matrikulazioa EAEn
Urte bakoitzeko lehen lauhilekoa



Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Aurtengo lehen lauhilekoan turismoen matrikulazioa %14,3 gehitu zen, 8.000 unitate baino gehiago salduz. Ukrainako gerrak ekoizpen kateetan tentsioak sortu dituen arren, hobekuntza lortu da turismoen salmentan.